# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**1599**

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 12koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena. Honen bidez, programazio didaktikoa eta/edo unitate didaktikoa epe barruan ez aurkeztearren Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautatze-prozeduratik kanpo geratzen diren izangaien behin-behineko zerrenda onartzen da (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren 6.2.1.4 oinarrian aurreikusitakoaren arabera).

***Lehenengoa***.– 2010eko urtarrilaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Agindua; haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egin zen.

***Bigarrena***.– Aipatutako 2009ko abenduaren 10eko aginduan, 7.1 oinarrian xedatutakoaren arabera, hurrengoa adierazten da: 2010eko otsailaren 15aren eta 26aren artean, izangaiek programazio didaktikoa entregatu beharko dute. Data horretan bertan entregatu beharko dute unitate didaktikoa B.2 ariketaren ordez txostena hautatu dutenek, baita 6.2.1.4.4 oinarriak adierazten duen idazkia ere.

***Hirugarrena***.– 7.1 oinarrian aurreikusitakoaren arabera, programazio didaktikoa epe barruan entregatzen ez duten izangaiek ezingo dute prozesu horretan jarraitu eta ondorioz hautatze-prozesutik kanpo garatzen dira. Era berean, 6.2.1.4.4 eta 7.1 oinarrietan aurreikusitakoaren arabera, hautatze-prozesutik kanpo geratzen dira unitate didaktikoa epe barruan aurkeztu ez duten izangaiek, baldin eta unitate didaktiko hori aurkeztu behar badute.

***Laugarrena***.– Egiaztatu egin da izangaiek ez dituztela epe barruan aurkeztu deialdiaren 6.2.1.2 oinarrian aurreikusitako programazio didaktikoa eta/edo deialdiaren 6.2.1.4 oinarrian aurreikusitako unitate didaktikoa, aurkeztu beharreko kasuetan.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**1599**

RESOLUCIÓN de 12 de marzo de 2010, del Director de Gestión de Personal, por la que se aprueba la relación provisional de aspirantes excluidos/as al proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por no haber presentado en plazo la programación didáctica y/o la unidad didáctica prevista en la base 6.2.1.4 de la Orden de 10 de diciembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

***Primero***.– Mediante Orden de 10 de diciembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco de 11 de enero de 2010, se convocó procedimiento selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Segundo***.– En la mencionada Orden de 10 de diciembre de 2009, en la base 7.1 se indica que entre el 15 de febrero y 26 de febrero de 2010 las personas aspirantes deberán hacer entrega de la programación didáctica. En esa misma fecha quienes hubieran optado por sustituir el ejercicio B.2 por un informe habrán de hacer entrega de la unidad didáctica correspondiente, y del escrito a que se refiere la base 6.2.1.4.4.

***Tercero***.– Conforme a lo dispuesto en la base 7.1, el no presentar en plazo la programación didáctica, supone la imposibilidad de continuar dicho proceso y como consecuencia la exclusión inmediata del aspirante del procedimiento selectivo. Igualmente, conforme a lo previsto en la base 6.2.1.4.4 y 7.1, quedan excluidos del procedimiento selectivo aquéllos que no aporten en plazo la unidad didáctica, en el caso de que en ellos concurriera tal obligación.

***Cuarto***.– Comprobada la existencia de aspirantes que no han presentado en el plazo establecido al efecto, la programación didáctica prevista en la base 6.2.1.2 de la convocatoria y/o la unidad didáctica prevista en la base 6.2.1.4 de la convocatoria, en el caso de que en ellos concurriera tal obligación.

Horregatik guztiarengatik,

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Programazio didaktikoa eta/edo unitate didaktikoa (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren 6.2.1.4 oinarrian aurreikusitakoa) aurkeztu behar izan dute hainbat izangaik. Aurkeztu beharrekoak epe barruan ez aurkeztearren, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduratik kanpo geratzen diren izangaien behin-behineko zerrenda onartzen da.

***2. artikulua.***– Zerrenda hori argitaratu egingo da Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten dituen helbideetan: http://www.irakasle.net eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

***3. artikulua.***– Behin-behineko zerrenda horren kontra erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek. Horretarako hamar egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 12a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Aprobar la relación provisional de aspirantes excluidos del proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por no haber entregado en plazo la programación didáctica y/o la unidad didáctica prevista en la base 6.2.1.4 de la Orden de 10 de diciembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

***Artículo 2***.– Dicha relación se publicará en las Delegaciones Territoriales de Educación y en las direcciones de internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: http://www.irakasle.net y http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

***Artículo 3.***– Contra la relación provisional de excluidos podrán los/as aspirantes presentar reclamación en el plazo de 10 días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de marzo de 2010.

El Director de Gestión de Personal,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.